

eibar kultura

iraila
septiembre **2001**

Zb./Nº: 1

ARRATEKO JAIXAK

**JUAN SAN MARTIN
2001. BEKA**

**EXPOSICIÓN
COLECTIVA:
18.30 - 20.30**

**BERBIA EMON.
EGITARAUA**



argitaritzailea:
Eibarko Udala
koordinatzailea:
PORTALEA. Kultur Etxea
idatziak, diseinu eta maketazioa:
ARBI Edición
inprimategia:
GERTU
Tirada:
3.000 ale

eibar-kulturak bere ekintzen berri eman nahi duten herriko talde eta elkarte gutzietatik abiatatzen diren proiektuak zabaltzen dizkie

eibar-kultura abre sus páginas a todos los grupos y asociaciones locales que quieran informar de sus actividades.

eibar-kulturak ez du bere gain hartzen aldizkariaren agertutako esanien erantzukizunik.

eibar-kultura no comparte necesariamente las opiniones aparecidas en esta publicación.



PORTALEA
Eibarko Udala

Bista Eder, 10 20600 Eibar Gipuzkoa
Tel. 943 707 153 • Fax 943 200 602
cultura.ei@eibar.net

AURKEZPENA

Gauzak betiko ez diranez, orain arte Kultur Gidak emon dabenez zerbizua hobetu nahixan, eibar-kulturaren aldaketa sakon, deigarri eta garrantzitsu honekin gatzoz.

Hemendik aurrera, kultur ekintzen agendaz gaiti, kultur ospakizunen komentariuak eta jakin biharrekuak jarriko ditugu, informazio osoa eskaintzeko helburuarekin.

Gure nahixa eibar-kultura Eibarko aktibitateen dibulgaziorako tresna efikaz izatia da. Horretarako, Udalak eta herriko entitate soziokulturalek prestatutako ekintzak argitaratzea derrigorrekua denez, danon kolaboraziora biharrezkua da.

Beste barik, emondako hau pausu onerako izango dalakoan, danon kolaboraziora eskertu gura dot.

PRESENTACIÓN

Como las cosas no son para siempre y con la intención de mejorar el servicio que hasta ahora venía dando la guía cultural, os presentamos eibar-kultura, un proyecto novedoso, importante y atractivo.

A partir de ahora, junto a la ya habitual agenda cultural, ésta se amplía con comentarios y todo lo que hay que saber sobre las actividades culturales de nuestra ciudad con la finalidad de ofrecer la información más completa.

Nuestro objetivo, es hacer de eibar-kultura una herramienta eficaz que difunda las actividades socio-culturales de Eibar. Para ello es necesaria la colaboración conjunta y coordinada entre el Ayuntamiento y las asociaciones locales.

Sin más, agradezco vuestra colaboración y espero que esta nueva iniciativa sea de vuestro agrado.

Iñaki Arriola
Alkatea

ARRATEKO AMAREN JAIAK

FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE

Irailak 7 - 8 - 9 Septiembre

Arrateko jaiak iritsi dira eta urtero moduan egitarau zabala prestatu dute. Beraz, egun haue-
tan Arratera hurbiltzen den jendeak ez du aspertzeko astirik edukiko. **Antolatzaileak Eibarko
Udala, Arratelo Jai Batzordea, “...eta kitto!”, Betikuak, Debemen, Deporra, Kezka,
eta Irati Kultur taldea** dira.

Irailaren 7an, Arrate bezperan, Arrateko Santutegian egingo den **Salbearekin** emango zaie
hasiera jaiiei, eta gauean jai hauetako ekitaldi garrantzitsuenetako bat izango dugu: **bertso
afaria**. Aurten gonbidatu dituzten bertsolariak ondoko hauek dira: **Andoni Egaña, Igor
Elortza, Sebastian Lizaso** eta **“Mañukorta”**. Gai jartzailea Rafael Zubizarreta **“Zendoia”**
izango da. Ekitaldi hau betiko moduan **...Eta Kitto!** Euskara Elkarteak antolatu du.

EGITARAU ZABALA ARRATEKO JAIETAN

Hurrengo egunean, hilak 8, Arrate eguna ospatuko da, eta ekitaldiak goizean goizetik hasiko dira. 10.00 etan Azitaingo surtidoretik irten eta **Arratera igoera** egingo da Ama

Birjinaren pausoen bidetik. Zesteroko iturrian, salda, txorizoa, eta ardoa banatuko dira, indarrak berreskuratzeke. **Meza Nagusiaren** ostean, Arrateko Amaren

prozesioa egingo da, **trikitilari** eta **bertsolariek** lagunduta. Urtero gertatzen den moduan, ekitaldi honetan jende asko batzea espero da. Aipatu behar da, egun honetan, beste ekitaldi batzuen artean, **Jose Luis Urzuriaga** “**Sumendixa**” zenari, eta **Juan M^a Ugarteburu**, “**Mandi**”-ri, omenaldia egingo zaiela. Iluntzean, dantzan egitea gustoko dutenek, aukera paregabea izango dute **Imuntzo eta Belokirekin**, eta gauerdian, **Asier Serranoren** taldeak kontzertua eskainiko du.

“SUMENDIXA” ETA “MANDI”-RI OMENALDIA

Aurtengo jaietako berrikuntza garrantzitsuenetako bat **Jose Luis Urzuriaga**, “**Sumendixa**”, eta **Jesus Mari Ugarteburu**, “**Mandi**”-ri egingo zaien omenaldia da. “**Sumendixa**” duela urte bete bete hil zen.

Bi pertsona hauek, garai ezberdinetan, Arrateko Jai Batzordean egindako lana eskertzeko jasoko dute omenaldia. Gainera, “**Sumendixa**” eta “**Mandi**”, biak izan ziren garai ezberdinetan Arrateko alkate eta bizilagun.

“**Sumendixa**”-ri hil osteko omenaldia egingo zaio, eta bertan senitartekoak izango dira.

ASIER SERRANO PRESENTA SU NUEVO DISCO

El músico y poeta eibarrés **Asier Serrano** presentará un adelanto de su nuevo disco durante las fiestas de Arrate. La **campa del barrio rural** será el escenario, el 8 de septiembre a las 12 de la noche, de la actuación de **Serrano**, primera en solitario con el nuevo grupo que ha formado el autor eibarrés tras la disolución de **Lorelei**.

En realidad, este nuevo trabajo discográfico está aún sin terminar (únicamente está grabada la mitad) pero **Serrano** ha querido adelantar en Arrate algunas de las composiciones, pues la presentación oficial se llevará a cabo durante la próxima **Feria del Libro y Disco de Durango**.

El disco, que aún no tiene título, centra sus canciones en las ataduras de las personas y la forma de liberarse de ellas, de la manera de desnudar el alma, todo ello a través de diversas historias de la gente.




DANTZA SOLTE LEHIAKETA

Bi dantza solte lehiaketa izango ditugu, bata hilaren 8an hamalau urtetik gorakoentzat, eta bestea irailaren 9an hamalau urtetik beherakoentzat. Bi lehiaketetan ere gehienez hamar bikotek hartu dezakete parte, gonbitaturiko bikoteak. Egungo bikoterik onenak Arratera ekartzen ahaleginduko dira. Gehienak Gipuzkoatik etortzen dira, nahiz eta herrialde guztietatik ekartzen saiatu.

Arrateko dantza lehiaketara bikoterik onenek etortzea nahi izaten dutenez, 14 urtetik gorako lehiaketara aurkezteko aukeraketa Euskal Dantzarien Biltzarraren bidez egiten da.

Irailaren 9an, **kofradia eta baserritar jubila-tuen eguna** ospatuko da, eta azken hauek bazkaria egingo dute Cantabria Jatetxean, trikitilari eta bertsolarien konpainian, eta ongi merezitako opariak ere jasoko dituzte. Egun honetan, besteak beste, **Simon Aldazabal VI. Antxitxiketaldia, paella eta gazta lehiaketa, eta idi frogak egingo dira.** Beraz, badakizue, ondo pasatu nahi baduzue, **animatu eta igo Arratera!**



FIESTAS DE AZITAIN AZITAINGO JAIAK

21 - 22 - 23 Septiembre - AZITAIN

En un mes habitualmente de festejos para Eibar, como es septiembre, uno de los referentes más significativos es el barrio de Azitain, cuyas fiestas se han convertido en toda una tradición en el calendario festivo eibarrés. Y como no podía ser menos, la animosa comisión de fiestas del barrio, en colaboración con el Ayuntamiento, ha preparado un amplio y variado programa para este año.

Los festejos se concentrarán en el fin de semana que comprende los días 21, 22 y 23 de septiembre. La jornada de apertura del viernes día 21 incluirá juegos infantiles y un rallye fotográfico por el propio barrio, así como el txikiteo popular que este año

llega ya a su IX edición. Se completará el programa con una actuación de la banda de música y una verbena nocturna.

La jornada central de las fiestas será el sábado 22, con actividades para todas las edades y gustos. Herri kirolak y dantzaris, por un lado. Concurso gastronómico y posterior comida popular, dentro del apartado gastronómico. Actos específicos para los más mayores, con romería y baile. Parque infantil y teatro para los niños. Y para los jóvenes, una parodia a cargo de los propios chavales del barrio y un concierto de rock.

El último día festivo, el domingo, será ya más tranquilo. Un campeonato de pulso, reparto de chocolate y caldo, y una misa, darán paso al lanzamiento de la traca final.

AGINAGAKO JAIAK

Irailak 29 - 30 - AGINAGA

Aginaga nekazal auzoko San Miguel jaiak irailaren 29 eta 30an ospatuko dira, hilaren azkenengo asteburuan. Nekazal giroko ekitaldien artean, idi-probak izango ditugu.

Bestalde, umeentzako jokoak egingo dira, eta dantza egitea gustoko dutenentzat erromeria ere egingo da.

Trikitilari eta bertsolarien emanaldiak ere izango ditugu, eta aurreko urteetan moduan bazkari herrikoia egingo dute auzokoei. Betiko moduan ez da falta auzo honetako jaiak izaten duten giro paregabea.

FIESTAS CANTABRAS EN EIBAR

15 - 16 - 22 - 29 Septiembre

La comunidad cántabra de Eibar celebra durante el mes de septiembre sus tradicionales fiestas en honor a la Virgen Bien Aparecida. El programa de festejos organizado por la Casa de Cantabria se desarrollará a lo largo de varios fines de semana e incluirá actividades deportivas, culturales y folclóricas.

El programa se abrirá el sábado día 15 con un torneo infantil de fútbol y una verbena amenizada por el grupo Etorki que tendrá lugar en el Instituto. Al día siguiente habrá misa, piscolabis y una comida de hermandad en el Hotel Arrate.

Para el segundo fin de semana festivo se anuncia una competición de bolos y la actuación del coro Ecos del Ebro, que tendrá como escenario la parroquia de San Pío. Estos dos actos, que se celebrarán el sábado día 22


La jornada de clausura de las fiestas será el sábado siguiente, día 29, con las finales del torneo infantil de fútbol, una nueva sesión de tiradas de bolos y una sardinada que servirá de colofón al programa festivo.

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldea

Irailak 14 - 30 - PORTALEA



Bakarne Elejalde



Vicente Eizagaetxeberría



Jose Luis Irigoien



Mateo Guilbert

Las Buenas obras del Club

Esta curiosa frase da título a la exposición que un año más organiza la sección de Fotografía del Club Deportivo Eibar, y que presenta la obra colectiva de los asociados. En la presente edición, Portalea será de nuevo el escenario de la muestra, que podrá verse entre los días 14 y 30 de septiembre.

En la selección de trabajos, se presentan, realizadas con diferentes técnicas, las fotografías de los integrantes de esta comisión del Deportivo. Desde paisajes y retratos hasta bodegones, todo ello en una amalgama de ideas y técnicas.

La muestra sirve además para recordar la reciente puesta en marcha del nuevo laboratorio de fotografía del Club Deportivo, habilitado con motivo del 75 aniversario del Club, y que constituye una novedosa e importante posibilidad para los aficionados eibarreses a la fotografía.

En la exposición de Portalea se podrán contemplar las obras de los siguientes fotógrafos: Virginia Arakistain, Vicente Eizagaetxeberría, Bakarne Elejalde, Ana Fouz, Mateo Guilbert, José Luis Irigoien, Felipe Loiola, José Luis Martínez, Fernando Retolaza, Jesús Unzueta, José Valderrey, José Vila y Luis María Sánchez.

JUAN JOSÉ ALTUNA

Pintura - 7 - 16 Septiembre - TOPALEKU

LUIS DAVID F. DE MATUTE

Escultura - 21 - 30 Septiembre - TOPALEKU

18.30 - 20.30

21 Septiembre - 7 Octubre - PORTALEA

Cuatro destacados artistas presentan su obra pictórica durante este mes de septiembre en Portalea, una exposición colectiva que llega a Eibar bajo el título "18.30 - 20.30".



ISABEL DE NAVERÁN

Licenciada en Bellas Artes, ha obtenido la beca de colaboración Fundación Guggenheim de Bilbao, contando también con varios galardones a nivel internacional. Ha expuesto su obra, entre otros lugares, en la VII Mostra Unión Fenosa de A Coruña, en el certamen Dosmil de la galería Winsdor, en Getxoarte 2001. También ha estado presente en la Cité Internationale Universitaire de París y un festival internacional celebrado recientemente en Grecia.



MARIA JOSÉ PARDO

Participante en la convocatoria de adquisición de patrimonio artístico de la UPV, esta licenciada en Bellas Artes ha logrado la Beca Erasmus. Entre sus participaciones más destacadas figuran el certamen regional de Artes Plásticas Pancho Cossio, el VIII Certamen de Pintura de Gallarta, la exposición Arte Joven El Corte Inglés. Ha expuesto también su obra en Cantabria, en Segovia, habiendo conseguido varios premios.



KEPA GARRAZA

Es licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco, a través de la beca Erasmus ha estado en el Art College Bradford, en el Reino Unido. Ha sido elegido en la convocatoria de adquisición de patrimonio artístico de la UPV, ha estado presente en la muestra itinerante Ertibil 2001 de la Diputación Foral de Guipúzcoa, y ha participado, también este año, en Getxoarte 2001.



ALBERTO URKIZA

Cuenta con una dilatada trayectoria artística este licenciado en Bellas Artes, destacando su participación en los dos últimos años en certámenes celebrados en Vizcaya (Bilbao, Algorta, Gallarta). Con anterioridad, ha expuesto en otras salas del País Vasco. También ha tomado parte en el programa de adquisición de patrimonio artístico de la UPV, y sus exposiciones han sido tanto individuales como colectivas.




INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA

- 30 horas teórico-prácticas.
- Dos turnos: lunes y miércoles, y martes y jueves, y sábados.
- Inicio en octubre
- Inscripciones: del 10 al 21 de septiembre
- Matrícula: 6.000 ptas.
- En el taller de fotografía de PORTALEA
- Plazas limitadas

TEATRO

- Curso de 40 horas impartido por KILI KOLO.
- Los martes y jueves de octubre, noviembre y diciembre.
- Horario: de 19:30 a 21:30 horas.
- Inscripciones: del 17 al 28 de septiembre.
- Matrícula: 9.000 ptas.
- A partir de 17 años. Plazas limitadas
- Información y matrículas en PORTALEA.



bolo-bolo

bolo-bolo

bolo-bolo

IKASTAROAK

- **Informatika** (Internet). Irailaren 15, 22 eta 29an, 11:00etatik 13:00etara.
- **Sukaldaritza**. Irailaren 15, 22 eta 29an, 10:30etatik 13:00etara, PORTALEAn.

LEHIAKETAK

- **Ping pong**. Irailaren 7an, 18:30etan.
- **Futbolina**. Irailaren 14an, 18:30etan.
- **Conecta 4**. Irailaren 21an, 18:30etan.
- **Trivial**. Irailaren 30ean, 18:00ean.



Klaseak berriro hasten dira, eta **Errota Gaztelekuak** ere bere egitaraua martxan ipiniko du hilabete honetan. Irailerako bi ikastaro antolatu dituzte, bata informatika-internet-en inguru-koa, eta bestea sukaldaritza ikastaroa. Honez gain, ping pong, futbolin, Conecta 4, eta Trivial lehiaketak ere egingo dira.

Errota Gaztelekuak urte bete darama gaztetxoentzako ekitaldiak antolatzen, eta orain arte erantzuna oso ona izan da; bai gaztetxoak, eta baita Udala ere oso gustora daude.

AFARIKETAN

Matrícula curso 2001 - 2002

17 y 18 de septiembre, de 16:00 a 18:00 h. en la ludotecas (Amaña, Urki, Urkizu)
19, 20 y 21 de septiembre, de 10:00 a 13:00 h. en PORTALEA.

LIBURU

Aurreko urteetan moduan, DLH-ko 6. mailako umeei zuzendurik dago "liburu artean" programa. Programa hau irailaren 19tik urriaren 11ra arte martxan egongo da, eta beraz, liburutegi tailerrak eta irailaren 29an egingo den "zapatuko ipuina"-ren kontaketak osatuko dute.



ARTEAN

Irailak 19 - Urria 11 - PORTALEA

Helburuak ondoko hauek dira: umeei liburutegiaren funtzionamendua erakustea, aurkitu nahi duten liburua nola bilatu erakustea, eta liburutegiaren antolamendua nolako den azaltzea. Liburutegitik libururen bat irakurtzeko atera nahi badute, mailegua nola egin ere adierazten zaie, eta orokorrean liburutegira doazenean beraz nola erabili azaltzen zaie. "Liburu artean" programa honek, azken finean duen helburu nagusia, liburutegiari oraindik haur batzuk dioten "beldurra", galtzea da.


Bai ikasketetarako, eta baita ere astialdirako, liburutegia erabiltzen erakustea da programaren helburua.



Lehiaketak.....CONCURSOS

IKUSENTZUNEZKOEN II. JAIALDIA "Asier Errasti"

Iraila - PORTALEA



Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatzen duten "Asier Errasti" Ikusentzuzkoen II. Jaialdirako lanak aurkezteko epea zabalik dago. Jaialdi hau Portalean egingo da, azaroaren 12tik 17ra.

Lehiaketak sail bakarra du, bideoz egindako fikzioa, eta gaia eta hizkuntzaren aldetik mugarik ez dagoen arren, obrak ezingo du 30 minutu baino gehiago iraun. Bideorik onenak 100.000 pezetako saria jasoko du, eta beste sari batzuk ere badaude.

SAN ANDRES KARTEL LEHIAKETA

Iraila - PORTALEA

Urriaren 16an, 14.00etan amaituko da San Andres Kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lanak Portalean aurkeztu beharko dira. Gaia eta kolorea norberak aukeratu ditzake, eta neurria 70x75zmtakoa izan beharko da. Sarituak 60000 pezetakotako diru kopurua jasoko du. Epai-mahaiak urriaren 18an emango du ezagutzera bere erabakia. Informazio gehiago nahiz gero, deitu 943 70 71 53 telefonora.



XIV CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN. 2001

Septiembre - PORTALEA

Desde el departamento de Cultura del Ayuntamiento se ha convocado una nueva edición del ya clásico Certamen de Fotografía Indalecio Ojanguren, en el que pueden participar todos los aficionados que lo deseen y con tema de libre elección. El máximo de trabajos a presentar es de tres fotografías en blanco y negro y tres en color por concursante. El plazo de admisión de obras finalizará el 31 de octubre, y el fallo del jurado se dará a conocer el 3 de noviembre. Se concederá un premio de honor para la mejor colección de fotos, ocho premios con categoría de primero para fotos sueltas, y tres premios para participantes eibarreses. En total, habrá 285.000 pesetas en premios. Con las obras premiadas se realizará una exposición y se editará un catálogo.



Iraila 22tik 29ra

Irailaren 22tik 29ra bitartean Berbia Emon astea ospatuko da. Aste honen barruan ipuin kontaketak, zinea, antzerkia, musika, umeentzako tailerrak eta kirol ihardurerak izango ditugu. Helburua, ume eta gaztetxoen artean, euskeraren erabilera eskolaz kanpo bultzatzea da.

Esan behar da, Berbia Emon aste hau Berbia Emon Hitzarmena dinamizatzeke egiten dela. Hitzarmen honen bidez herriko 50 elkartek baino gehiagok euren aktibitateetan euskara bultzatzeko konpromisoa hartu dute. Hitzarmen honen titularra Eibarko Udala den arren, programaren jarraipen eta dinamizazioa Eta Kitto Euskara Elkartearen esku dago. Hitzarmen honen bidez urtean zehar hainbat zerbitzu eskaintzen dira, besteak beste ondoko hauek: kirolerako materiala, ikastaro ezberdinak, berri papera, aholkularitza...

Beraz, irailaren 22tik 29ra egingo den Berbia Emon asteak, aurretik aipaturiko hitzarmenaren barruan egingo diren ekitaldi eta aktibitate kulturalak aste batean konzentratzen ditu. Besteak beste, aste honetan, irailaren 25ean, "Errekamari" antzeslana ikusteko aukera izango dugu. Magia gustoko dutenek ere izango dute bere txokoa, "Eriz" magoak hilaren 27an Portalean emango duen ekitaldiarekin. Kirolari dagokionez, irailaren 22an saskibaloia izango dugu Ipuruako Kirolegian.

Aste honi amaiera emateko Berbia Emon jaialdia egingo da irailaren 29an, zapatuan, Urkizuko parkean. Jaialdian tailerrak, pilota partiduak, puzgarriak, jokoak e.a. izango ditugu. Aurten ere, aurreko urteetan gertatu izan den moduan, Berbia Emon aste honetan jendearen parte hartze handia espero da, bai antolatutako diren ekitaldietan, eta baita ere azkenengo egunean egingo den jaialdian.



EGITARAUA

- **Baloncesto.** 22 de septiembre de 9:30 a 12:30 h. en el Polideportivo Ipurua (LH3-LH6)
- **Cine.** 24 de septiembre a las 17:00 h. en el Salón de Actos de Portalea. (LH)
- **Teatro: "ERREKAMARI".** 25 de septiembre a las 17:00 h. en el Salón de Actos de Portalea. (LH)
- **Cine.** 26 de septiembre a las 17:00 h. en el Salón de actos de Portalea. (LH)
- **Conferencia: "ASISKO ORMENETA"** 26 de septiembre a las 19:00 h. en Errota Gaztelekua (DBH).
- **ERIZ Magoa.** 27 de septiembre a las 17:00 h. en el Salón de Actos de Portalea. (LH).
- **IPUIN KONTALARIA. Peio Añorga.** 28 de septiembre a las 17:00 horas en la Biblioteca de Portalea (HH).
- **Teatro: PETER ROBERTS. "Gizona bere bakardadean".** 28 de septiembre a las 19:00 h. en Errota Gaztelekua.
- **BERBIA EMON JAIALDIA.** (talleres, partidos de pelota, hinchables, juegos, aerobiton,...) 29 de septiembre, de 10:00 a 13:30 h. en el parque de Urkizu.



Aukeraketarako irizpide nagusiak:

- Bekara aurkezten diren curriculuma eta espediente akademiko (0-10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-30 puntu).
- Eibarko Udal Artxiboaren edo/ eta UEU-k Eibarko Markeskuan duen fondoak erabiliko dituen gaia, edo/ eta Eibarrekin harreman zuzena duen gaia izatea.

JUAN SAN MARTIN 2001 beka antolatu du Eibarko Udalak Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) laguntzarekin. Bekaren helburua euskarazko ikerketa bultzatzea eta sustatzea da, eta Juan San Martin eibartar euskalzale eta ikerlariaren omenez ezarri diote izen hori. Beka honen bidez landuko diren ikerketa esparruak Juan San Martinek berak landu dituenak izango dira: antropologia, linguistika, filologia, literatura, toponimia, filosofia, botanika, artea, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea. Baina aurtengo deialdian antropologia eta filologia esparruak baino ez dira landuko.

Beka honen proiektua, azterlana, eta memoria euskeraz egin beharko dira; beka gehienez 12 hilabeteko iraupena izango du, eta diru laguntza 1.500.000 pezetatakoa izango da. Lanak originalak eta aurkeztu gabeak izan beharko dira.

Beka hauetara bakarka edo taldeka aurkezteko aukera egongo da, eta taldeka aurkezten diren lanek zuzendari arduradun bat izan beharko dute. Gainera, beka honetara aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da diplomatura (maila bereko tituluak ere onartzen dira), edo goi mailako titulu bat edukitzea. Taldeka aurkezten diren proiektuetan gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hau.

Eskaerak eta agiriak aurkezteko epea irailaren 17tik urriaren 23ra arte egongo da zabalik, biak barne. Beka honetara aurkezteko interesa dutenek Portaleko Euskara, Hezkuntza eta kultura zerbitzura jo beharko dute, edo bestela 943-707153 telefonora deitu, bertan bekaren eta aurkeztu beharko diren agirien berri zabalagoa izango dute. Beka azaroaren erdialdean alkateak adjudikatuko du, epaimahaiaren erabakia ezagutu ostean.

Horrelako kasuetan gertatzen den moduan, Udalak bere gain hartzen du ikerketak beretzat hartzeko eskubidea, edo/eta hauek argitaratu edo plazaratzeko eskubidea.

